

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 229. alea - 2018ko maiatza

MUGA



**Esker oneko omenaldia Anes
Arrinda Krosaren 50. urtemugan**



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel. faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383
berriketan@zuhatza.com




ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



17/18
CURSO IKASTURTEA
Matrikula epea ZABALIK
Plazo de matriculación ABIERTO

ONGI ETORRI
euskarara

UDAL EUSKALTEGIAK
euskara klaseak - clases de euskera
www.udaleuskaltegiak.eus




UDA IKASTAROA

IRAUPENA: 80 ORDU

Ekainaren **25**etik uztailaren **20**ra
(4 ordu egunean)

PREZIOA: **123€**

Ikasle eta langabetuentzako
prezioa: **77€**

Bekatzte-sistema

MATRIKULALDIA: ekainaren 15era arte

DEBABA UDAL EUSKALTEGIA
Ifar Kalea, 2 – Tel.: 943 192 236
DEBA

AURKIBIDEA

04

GUTUNAK

“Guk sinesten dizugu”,
“Badatoz Kolorez Blai
Udalekuak!”,
“Inoiz ez da berandu...”

08

GIZA KATEA

Debatik ere pasako da
hilaren 10ean Gure Esku
Dagoren giza katea. “Ni
banoa. Eta zu bazatoz?”

10

KRONIKA

Anes Arrinda haur
krosaren 50. edizioa
izan da: ospakizuna,
lasterketak, omenaldia...

12

ANTZERKI ASTEA

Dena prest aurtengo
Antzerki Asteari
hasiera emateko.
Ikus egitaraua

14

B. GAZTEA

Fernando Morillo
idazlearen bisita, Danel
Bereikua youtuberrari
elkarrizketa, inkesta...

Estatutuak berritzeko ezohiko bilera egingo du Zuhatzak

Zuhatza Euskara Elkartek ezohiko bilera bat egingo du datorren ekainaren 1ean (ostirala), arratsaldeko 18:00etan, elkartearen estatutuak lege berrira egokitzeko asmotan. **Batzarra** elkartearen bulegoan egingo da (Iifar kalean) eta irekia izango da; beraz, bazkide guztiak zaude gonbidatuta hitzordura.

Bestetik, bazkideei jakinarazi nahi dizuegu ekainean kobratuko zaizuela urteroko **bazkide kuota**. Aurretik azaldu

genizuen bezala, apirilean egindako urteroko batzar orokorrean kuota berdin mantentzea erabaki zen (25 euro urtean).

Bazkideen datuak bildu nahian

Bide batez, elkarteko bazkideen datu basea berritzeko lanak aurrera doazela gogorarazi nahi dizuegu. Bazkide zerrenda eguneratu da dagoeneko, baina oraindik ere datu basea osatzeko makina bat bazkideren datuak falta ditugu. Hori dela

eta, eskutitz bidez, posta elektronikoz edota telefonoz eskatu zaizkizuen datuak bideratzea eskatu nahi dizuegu berriz ere. Mesedez, bidali eskatutako datuak koordinatzailea@zuhatza.com helbidera, deitu elkarteko 632043322 telefono zenbakira (Terese) edota bete eta ekarri datuen orria zuzenean Zuhatzaren bulegora. Zinez eskertuko genuke zuen laguntza.

Zuhatza Euskara Elkartea

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatza
euskarako elkarteak
deba

LAGUNTZAILEAK



Debak Udalak



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saiburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea. Deba.

Kolaboratzaile berezia:

Mendata BHIko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax Dorronsoro eta Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Inprimategia: Euskalinpri

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 1.500 karaktere izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Guk sinesten dizugu



Gernikako bonbardaketaren eta Chernobyngo istripu nuklearraren urteurren egun berean alarma eta haserrea piztu ziren, Iruñeko epaitegiko atarian hasi eta gure herrietako plaza guztietara iritsiz. Iruñean 2016an gertatutako talde-bortxaketaren epaiarekiko desadostasuna adierazteko Debako Talde Feministako kideok lapikokada deitu genuen. Deialdiak erantzun zabala izan zuen eta orduan esandakoak gogoratzen ditugu hemen:

- Sinesgarritasun eta aitortza kolektibo egiteko bildu ginen. Ez dugu zalantzarik, bortxaketa izan zen: erasotzaileek bai biolentzia bai intimidazioa erabili zituzten erasotua bortxatzeko. Nahiz eta (in)justizia instituzioek hori ez aitortu, **guk sinesten dizugu, eta ez zaude bakarrik.**

- Emakumeon aurkako erasoak eguneroko errealitate dira gurean.

- Hau arazo politiko bat da, egiturazkoa, eta konpromiso politikoa eta soziala beharrezkoak dira.

- Beste hainbatetan gertatzen den moduan, epai honekin ikusi dugu epaite-

giak ez daudela emakumeon gorputzen eta bizitzaren alde; bai, ordea, sistema patriarkala eta misoginoa iraunaraztearen alde.

- Epaitegiek ez dute indarkeria matxista behar bezala zigortzen. Era honetan, jendartean dauden botere-harremanak iraunarazteko ezinbestekoa den **indarkeria matxista zigorgabe lagatzen dute.**

- Injustiziek jarraitzen duten bitartean, kaleak hartzen, autodefentsa feminista aldarrikatzen eta emakumeon aurkako

biolentzia salatzen jarraituko dugu.

Debako Talde Feministak aipatutako deialdira hurbildutakoak eta beste herritar guztiak ere gonbidatzen zaituztete eraso matxisten aurka lantzen ari garen protokoloan parte hartzera.

Lehenengo saioa joan den maiatzaren 12an (larunbata) egin zen, Debako Talde Feministaren Osioko lokalean. Eta laster **Autodefentsa feminista saioa** egitea ere aurreikusten dugu.

Debako Talde Feminista
debakotaldefeminista@gmail.com

“Morea, lore dotorea, izango da gure kolorea!” Badatoz Kolorez Blai euskal udalekuak!



Aurten ere udalekuak Kolore Anitzek antolatuko ditu; beraz, presta zaitezte uztaile koloretsu eta alaia pasatzeko, irrikaz gatzoz eta!

“Larrosa, udalekuek ematen digute guri poza”. Uztaile osoan arituko gara herriko kaleetan zehar, adin desberdineko haurrei jolas eta denbora-pasa dibertigarriak eskainiz. Euskaraz, noski!

Lehenengo txanda uztailearen 2tik 13ra izango da, txikienei zuzenduta -HH5 eta LH1-LH2 mailetako ikasleentzat-. Bigarren txanda, berriz, uztailearen

16tik 27ra egingo da -LH3tik LH6ra bitarteko haurrekin-.

“Horia, lagun berriak dira gure oparia”. Urtero bezala, izen-emate arrakastatsua espero dugu, herriko zein kanpoko haurrei elkarrekin jolasteko eta elkar ezagutzeko aukerak emanez. Euskal udalekuek izena emateko epea maiatzaren 30ean amaituko da. Izena emateko eskuorriak ikastetxean banatuko ditugu eta, era berean, Zuhatza Euskara Elkartearen bulegoan, Udaletxeko sarreran eta Turismo bulegoan ere izango dituzue eskura. Informazio gehiagorako, deitu lasai 632043322 telefono zenbakira.

“Laranja, festa iritsi da, gozatzera etorri hona”. Ekintza eta jolas berri eta dibertigarri pila batekin gatzoz oraingoan ere, pozik eta ilusio handiz hartu baitugu udalekuak antolatzeko ardura gure taldeari esleitu izana.

Beraz, abestiak jarraitzen duen bezala, *“txuria, atera ezazu zure irria”* eta zatzoz gurekin uda zoragarri bat pasatzera!!!

Laster izango dugu berriz ere elkarren berri. Bitartean, eskerrak eman nahi dizkizuegu guran konfiantza jartzen duzuen guztioi! Laster arte!

Zuhatza Kolore Anitz
Aisialdi Taldea

Inoiz ez da berandu...

...Zoria ona bada, dio erdal esaera ezagun batek eta, atsoitzen oso zalea ez banaiz ere, oraingoan egia izan behar duela sinetsita nago. Izan ere, nork esan behar zidan niri bizitzaren esparru honetara heldu eta, lehen aldiz, Euskal Herriko mugetatik kanpo kontzertu bat emateko aukera izango nuenik, non eta Katalunian gainera.

Egia esatera, modurik bizkor eta, hala ere (edo, agian, horretxegatik), ederrenean gertatu zen dena. Apirilaren 24an Bartzelonako kostaldean dagoen herri aski ezagun baterantz abiatu ginen bertan egun batzuk emateko asmoarekin eta hara non, bidean, gure helmugatik gertu ginela, adiskide eta kantu-lagun dudan Miquelen sorteriaren ondo-ondotik iragan behar genuela ohartu ginen. Bada, bertan sartu, argazki batzuk egin, Miqueli bidali eta... nolako ustekabea! Zer egiten duzue nire herrian!

Nik banekien handik bi egunetara



Miquel jaioterrira etortzekoa zela; berak, ordea, ez ni hara joatekoa nintzenik. Handik aurrerakoa, nola esan, ene ametsik ederrenean ere irudikatu ezin nezakeena izan zen: Jokin, kontzertu bat eman behar dugu nire herrian! Nola, zoratuta zaude ala? Bai, etxe ondoko tabernan leku egokia dago horretarako; anaiari deituko diot eta prestatu dezala dena. Baina, Miquel, nik ez dut gitarrarik ekarri! Lasai, nire anaiak baditu nahi adina eta, bestela, neronek eramango dizut ostegunean. Esan eta egin. Eguna amaitzerako, asteartea zen, mugikorrean nuen emanaldia iragartzen zuen kartelaren irudia: **apirilaren 28an, 19:30ean, En Silé tabernaren patioan,**



Euskalerriko kantak. Bo, sinestezina!

Eta hala, egun seinalatuan, Sanprontzio egunez (Lazkaoko jaien egun handian), ordubete luzeko kontzertu gogoangarria eman genuen Miquelen eta bere anaia Alberten lagun, ezagun eta herrikideen aurrean, bizi naizen artean ene gogoan iltzatuta geratuko dena.

Mila esker Miquel, Albert, Toni eta Sant Pereko herritarrei, ustekabeko opari honengatik. Moltes gràcies a tots. Fins aviat. Etorriko al dira aurrerantzean gehiago! Hastapenean esan bezala, inoiz ez baita berandu.

Jokin Lasa

Kontapalariak Madrilen

Aniztasuna modan dago gaur egun. Sukaldaritzan zein bestelako esparru askotan kultura eta jatorri desberdinetako tendentziak nahasten ari dira, *afro-latin fusion*, *euskal-japonesa*,... Debako bi talde desberdinen fusioa ere dastatu ahal izan dugu Madrilen, Euskal Etxera egin dugun bisitan. Palariak eta Kontalariak. Emaitza aberatsa, gustagarria eta atsegina izan da, zinez. Eta konturatu gara gogoia eta ilusioa dagoen tokian edozein nahaste dela posible.

Altxorraren bila jarri gintuen Ane Bastidak apirileko *Berriketan*-en eta gu horren atzetik abiatu ginen. Gure Ane pirata Kapitain ezin hobea izan da eta uneoro altxorrez inguratuta sentiarazi gaitu. Euskal Etxean, Madrileko hainbat txokotan, hiriburuan dauden euskaldunen artean,... etxean sentitu gara. Zortedunak gu.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu aste-buru zoragarri honetan altxorraren bila lagundu diguzuen guztioi. Izan ere, ez



dugu asko bilatu behar izan, altxorrek zuek zaretela konturatu baikara.

Mari Seara

Bizitza osoa deserrian, ongi etorria haiz hire herrian

1981eko urtarrilean ihes egin behar izan huen, hire herriarekiko maitasunak harrarazi zizkian ardurek ekarri zezaketen errepresioa sailhesteko. Ihesean urte luzez, 1999ko uztailean espetxeratua eta, orduetik, makina bat kartzelen gordina ezagutu duk: Soto, Leon, Langraitz, Valladolid... Honekin batera, hire lagun eta senitartekoen bisita eta gutunak izan dituk gozagarri.

Jakitun haiz jende askoren gogoan egon haizena, batzuk bisitan joan zaizkik, beste batzuk elkarretaratze eta presoan aldeko dinamiketan hartu ditek parte, bidaiak egiten, txosnetan etab. Ezagutzen ez hauten gazte askok ere lan ikaragarria egin ditek... eta azken presoak kaleratu arte ere jarraituko diagu guztioi.

Ez diagu, ordea, hire itzulera soilik

ospatzen, 1977az geroztik, Deba-Itziarren preso politikorik ez egotea ere ospatuko diagu hire etorreran. Ekainaren 10ean, zazpiak aldera, hainbeste urtez, hain hurbil sentitu baina hain urrun izan duan herrian elkar ikusiko diagu!!!

Kalera, kalera! Bakea eta askatasuna irabaztera!

Ongi Etorri Galarraga Taldea

Gure osasunari dagokionean, garrantzitsuagoa da posta-kodea genetika-kodea baino

Urte gehiago edo gutxiago bizitzeko unean, bizi-itxaropena ez da berdin Euskadiko auzo-alde batean edo beste batean jaio eta bizitzea. Izan ere, hezkuntzak, lanak edo langabeziak, diru-sarrerek, generoak, badute zerikusirik bizi-baldintza materiale-tan, faktore psikosozialetan eta jokaeretan (sedentarismo maila, orekarik gabeko dietak, alkohola, tabakozale edo ez izatea), aldi berean, pertsonen osasunean eragin zuzena dutelarik. Eskuragarri diren zerbitzu publiko nahiz pribatuek eta atsedean eta jolas ekipamenduek, eta ez osasun zerbitzuek soilik, benetakoa eragina dute gure bizi-itxaropenean.

Medea proiektuak egiaztatu duenez, hiri baten barruan bertan 10 urteko aldea ikus daiteke. Adibidetzat Bilbo hartuta, Algortatik Alde Zaharrerainoko metro ibilbidea egitea aski dugu oharretako Bilboko alde batetik bestera, bizi-itxaropenean, 8 urteko aldea dagoela gizonetan eta lau urtekoa emakumeetan.

Gizonezkoei dagokienean, Arabako bailaretan bizi-itxaropen oparagoa dutela agertu da, 79,5 urteko adina harrapatzen baitute, Euskal Herrian batez besteko adin muga 76,5 urtekoa denean. Luzaroago bizi dira gizonezkoak Arabako mendialdean ere (79,4 urte), Aranbizkarran (78,3) eta Gazalbide-Txagorritxun (78,2), Donostiako Amara auzoan (78,3) eta Bizkaiko Algortan (78,2). Alderantziz, bizi-itxaropen laburragoa dute Bilboko San Adrian (74), Otxarkoaga (72,9), Alde Zaharra (72,2), Bilbo Zaharra (69,9) auzoetan; baita Gipuzkoako Pasai San Pedron (73,8) eta Bizkaiko Abanto-Muskiz meategi gunean (73,6) ere.

Euskal emakumeen bizi-itxaropena 83,8 urtekoa da batez beste; baina askoz handiagoa da hau Arabako Santa Luzia bailaretan (86) eta Gasteiz Buruan (85,6); baita Donostiako Amara eta Ondarreta auzoetan (86), Alegian (85,8), Azpeitian (85,5) eta Leniz haranean (85,5) ere. Bizi-itxaropena jaitsi egiten da, ordea, Gipuzkoako Ibarra (81,2), Arabako Abetxukon (81,3), Bizkaiko Abanto-Muskiz bailaretan (81,5), Erandio-Desertun (80,8), Bilboko La Peña-Zamakolan (81,2) eta Bilbo Zaharrean (80,4), auzoetan bezalaxe.

Bizi-itxaropenean alderik ba ote da 20820/Deba eta 20829/Itziar posta-kodeen artean?

Gure osasuna eta ongi-izatea bizi, hazi eta gabiltzan tokiko gizarte, ekonomia, politika, eguraldi, kultura, hezkuntza, geografia eta osasun baldintzen baitan daude, eta bizibide egoki



bat bermatzeko udalerrian ari diren sektore ezberdinetako kideen ahalegin koordinatua behar da; herriko batzorde eta elkarte guztien koordinazioa, alegia, osasunaren sustapenerako estrategia batekin eta abar, debar, itziartar, lasturtar, elorrixatar eta abarren parte-hartzea sustatuz.

Nola lortu udalerrri osasungarriagoak

Udalerrri parte-hartzaile eta arduratsuen bidez, gizarte sare babesleak, elkartzeko bideak sustatuz. Gizarte sareen hobetzeak eta komunitate elkartuagoak sortzeak pertsonentzat bizibide luzeagoa eta osasuntsuagoa ahalbidetzen dute. Zenbat eta gizarte lotura sendoagoa, orduan eta ongi-izate maila hobea; bakardadeak tabakoak bezainbeste heriotza eragiten du.

Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasun lege eraginkorra erraztuko duten jardun politiko bizkorrek ezarri behar dira. Lehen Arreta hobetsiko duten hezkuntza eta osasun-bide publiko, unibertsal eta kalitatezkoa bermatzen zintzo saiatu beharra dago. Etxebizitza eskuragarri jarri behar da, gazteen burujabetza errazteko; garraio publikoa hobetu, ingurugiroko kutsadura gutxitu (amiantoa non dagoen bilatzen saiatu eta eraikuntza publikoetatik nahiz gure etxeetatik kentzea barne); kalitatezko lanbidea sustatu eta ezegonkortasunari aurka egin; paseo, atsedean eta jolaserako ingurune osasungarriak sortu, aldi berean ezberdintasun sozial eta ekonomikoaren, tokian tokiko nahiz nazio eremuko, diskriminazio eta arrazakeriaren kontra benetan borroka eginez. Hori guztia lortu behar da.

Zuzentasunaren aldeko borroka, oro har, aurreko jokabide horien emaitzak emakume eta gizon guztienganaino, bereziki gehien behar dituztenenganaino, heltzen direnean amaituko da.

Jose Luis Albizu eta Lukax Dorronsoro

**Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren "Oinarritzko osasun-eremuetan bizi-itxaropenak dituen ezberdintasunak" Medea proiektuaren emaitzak (2015); politika lanak behar handiena duten eremuei laguntza eskaintzera bideratzen lagundu beharko luketen emaitzak, alegia.*





AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



Debako EUSKARALDIAK

HAMAIAKAKOA aurkeztuko du

Ekainaren 2an, 18:30ean, Plaza Zaharrean



MAIALEN TELLABIDE

Astakirtenak. Jaio ala hezi?

Urtarrilean izandako eztabaida baten ondorioz, ergelak ergel jaiotzen ote diren, edo denborarekin ergeltzen joaten diren galdetu diot etengabe nire buruari. Zorionez, Dunning-Kruger Sindromeak eman zidan erantzuna. 1999an, AEBko Cornell-eko Unibertsitatean eginiko azterketen arabera, pertsona tuntunek besteen gaitasunak gutxien dituzte, propioak goiraipatuz. Errealitatearen irudi distorsionatua osatzen dute, frogak agerikoak edo logikoak izan arren. Beste modu batera esanda, lantzean behin sutan jartzen zaituzteten *flipatuak* benetako astakirtenak direla, eta zientifikoki egiazta diezaiekezuela; ze pena ez dutela sekula ulertuko. Bestalde, definizioz, gaitasun intelektual hobeak dituzten pertsonen euren gaitasunak gutxiesteko joera izaten dute, baina akatsak antzemateko eta konpontzeko gai dira.

Honen guztiaren arabera ergelkeria genetikan dagoela dirudi, norbanakoaren ahalmen kognitiboarekin zerikusia duelako; hala ere, heziketaren garrantzia nabarmendu zuten. Nerabe mima-tuak, heldu frustratuak edota kausa gabeko kaskagorrorak dira klubeko partaideak, eta gure onetik ateratzeko abilezia berezia dute. Euskal Herrian eguzkia ikusten dugun bezainbestetan arrazoitzen dute zentzuz, bizpahiru aldiz urtean, alegia.

Izenburuko galderari erantzunez, badirudi artaburuak bai jaio baita hezi (eta lerdokerian hazi) ere egiten direla. Ziur nago bat baino gehiago ezagutzen duzuela. Eta ez baduzue inor ezagutzen, zorionekoak izan zarete, edo... atera kontuak.

Baina zer da Euskaraldia? Euskaldunak aktibatu eta hizkuntza ohiturak astintzera datorren ekimena da: egin dezagun euskaraz, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean. 11 egunez. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra.

Nola? Ondoko bi roletako bat hartuz 11 egunez:



Ahobizi: Ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet.



Belarriprest: Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.

Zer lortu nahi dugu?

- Gure harremanetan hizkuntzarekin ditugun inertziak astintzea eta uste baino gehiagotan euskarazko komunikazioa posible dela frogatzea.

- Euskal Herrian euskara ulertzen duen jendea pentsatzen duguna baino gehiago dela jabearaztea eta euskara gehiagotan erabili dezakegula ikusaraztea.

- Hizkuntza ohiturak aldatzea norberaren hautua eta ariketa izan arren, bidea taldean eta batera, erosoago eta lagunduago egitea.

- Euskara erabiltzeko inguru eta

egoera berriak, babestuagoak, sortzea.

Nork har dezake parte?

16 urtetik gorako herritarrek eman dezakegu izena, irailetik aurrera.

- Ahobizi* izateko, euskaraz hitz egiten jakin behar da.

- Belarriprest* izateko euskara ulertu behar da.

Irizpideak betez gero, norberak erabakiko du zein roletan izena eman.

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, *Ahobizi* edo *Belarriprest* ikurra soinean eramanez, eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa egin!

DEBAKO HAMAIAKAKOA

Debako Euskaraldiaren “enbajadore” eta erreferentzia izango diren hamaika laguneko taldea da HAMAIAKAKOA. Ekainaren 2an aurkeztuko ditugu kideak, arratsaldeko 18:30ean, Plaza Zaharrean. Zer ote diote?

Eta bitartean...

Debako eragile eta euskaltzaleek antolatutako batzordean parte har dezakezu. Informazioa zabalitzen eta inguruan *Ahobizi* eta *Belarriprest* berriak aktibatzen denok egin dezakegu ekarpena.

Taldearekin harremanetan jarri nahi izanez gero, debakoeuskaraldia@gmail.com helbidea erabil dezakezu edo 688663744 telefonora deitu. Gainera, Debako Euskaraldia izenarekin Facebook orria sortu dugu: bertan, lantaldeen bileren eta eguneko gorabeheren berri jaso dezakezu.

Debatik ere pasako da giza katea ekainaren 10ean



Jende zoriotsua nahi dugu herri libre batean... baina hori ez da egun batetik bestera lortzen.

Gaurkoan proposamen berri batekin gatzokizue. Ekainaren 10ean (igandea) egingo dugun giza katean parte hartzea gonbidatu nahi zaituztegu. Euskal Herrian inoiz egin den mobilizazio handiena iragarri du Gure Esku Dago mugimenduk; Donostia, Bilbo eta Gasteiz, eta bidean hamaika herri lotu eta 201,9 kilometro luze izango dituen giza katea.

Ekimena, gainera, Debatik pasako da eta herritarroi tokatu zaigu 52 kilometroa osatzea. Miramar pareko tuneletik Artzabalgo biribilgunera arteko ibilbidea osatu beharko dugu.

Udaletxeko arkupetan izena emateko aukera dago 5 euroren truke. Izena ematean, zapi bat lortuko duzue. Bertan, oihalekin egin bezala, norberak bere ideiak idatzi, josi, marraztu eta abar egin ditzake... Izena emateko mahaia ostiraletan egongo da jarrita (19:00etatik 21:00etara), baita larunbatetan eta igandetan ere (12:00etatik 14:00etara).

Zergatik joan, beraz, giza katera?

-Erabakitzeko eskubidea gauzatzeko aukera berriak sortu daitezkeen honetan, herritar guztiok ezinbesteko giltza garelako.

-Euskal herritarrok gure etorkizun politikoa libreki eta demokratikoki erabakiko dugun ziklo berri bat ireki nahi dugulako.

-Gure eskubideak eta erabakia defendatuz eta egikaritzuz, etorkizun hobe batera jauzi egingo dugulako.

-Epe luzerako elkarbizitza eraikitzeko, erabakiak batu egiten gaituelako.

-Elkarri eskua emateko milaka arrazoi ditugulako.

-Herri gisa jarduteko eta guztiok bat egiteko garaia delako.

-Galdu ezin duzun esperientzia ahaztezina izango delako.

-Herri libre batean zoriotsu izan nahi dugulako.

-Hemen zerrendatzen diren arrazoiak baino askoz ere motibo gehiago dituzulako.



-Etorkizuna zu zarelako.

Zein da eguneko egitaraua?

-10:00: Gure kilometrorra hurbilduko gara. Miramar pareko tuneletik Artzabalgo biribilgunera arteko ibilbidea osatu ahal izateko, antolatzaileek zehaztuko diete parte-hartzaileei zein lekutan egon behar duten.

-11:30: Giza kateak prest egon behar du.

-12:00: Giza katearen hasiera.

-12:30: Giza katearen amaiera.

Debarroi egokitu zaigun ibilbidea osatu ahal izateko, 500 bat herritar beharko dira Deban. Zenbat eta lagun gehiago, orduan eta hobeto! Herriko talde zein norbanakoak animatu nahi ditugu, giza katean parte hartzeko orduan, musika instrumentuak, malabareak, kamiseta koloretsuak, globoak edo iruditzen zaizuen guztia eramatera, une gogoangarri eta zoriontsua igaro nahi dugulako (zalantzarik izanez gero, pasa mahaitik). **NI BANOA. ETA ZU BAZATOZ??**

Antolaketa lanetan ere parte hartu daiteke. Giza katea ongi irten dadin, laguntza oro izango da ongi etorria. Beraz, animatuz gero, pasa Gure Esku Dagoren mahaitik.

Oraingoan ere, giza katean elkar ikusi-ko dugulakoan.

Debako Gure Esku Dago

**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
N.º 379

Higiezin zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Entresna Registrada nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2

Urrezko domina irabazi du Amagoia Arrietak Euskadiko Boccia txapelketan

Euskadiko Boccia Txapelketatik urrezko dominarekin itzuli da Amagoia Arrieta, Dordoka kirol elkar-teko kirolaria.

Berrogei bat parte-hartzaile bildu ziren Gasteizko San Andres kiroldegian jokatu zen lehian, eta finalean Mario Rodriguezen aurka partida parekatua jokatu ostean nagusitu zen

Arrieta (3-2). Gasteizen lortutako garaipen horri esker eskuratu zuen urrezko domina, baita maiatzaren amaieran Sevillan jokatu den Espainiako txapelketarako pasea ere.

Bestetik, uztailean Povia de Varzimen (Portugal) jokatu den World Open-ean lehiatzeko ere aukeratu dute kirolari debarra.

Urrezko eta zilarrezko dominak lortu dituzte bi gazte debarrek Atletismo txapelketetan

Maiatzeko lehenengo asteburuan Durangon jokatuak Aire libreko Euskadiko Atletismo Txapelketan urrezko eta zilarrezko dominak irabazi zituen **Martin Hernandez Beitiak**.

Hilaren 5ean, larunbata, 18 urtez azpikoen kategorian nagusitu zen Mintxeta Atletismo Taldeko kide den Debako gaztea, 400 metroko lasterketa 51 segundo eta 54 ehunekotan osatu ostean. Igandean, aldiz, kategorian berean baina 800 metroko lasterketan parte hartu zuen, zilarrezko domina eskuratuz -minutu bat, 58 segundo eta 40 ehuneko denborarekin-.

Astebete beranduago, maiatzaren 12an, Gipuzkoako U16 (kadete), U18



Iñaki Beasain, Donostiako lasterketan.

Argazkia: M.A.T.

(jubenil) eta U20 (junior) txapelketa ere izan zen Donostian. Mintxeta Atletismo Taldeko kide den **Iñaki Beasain** debarrek urrezko domina irabazi zuen 800 metroko proban. Bere marka 12 segundoan hobetuta, 2:05.00 denborarekin, Gipuzkoako U18 txapel-dun izendatu zuten.

300dik gora txirrindularik parte hartu dute

Debako bira-zikloturista proban

Debako bira-zikloturistaren 26. edizioa maiatzaren 13an jokatu zen. Proban parte hartzeko izena 381 txirrindularik eman bazuten ere, azkenean horietako 310ek lortu zuten 128 kilometroko ibilbidea osatzea. Parte-hartzaileen artean, Euskal Herriko puntu ezberdinetatik etorritako kirolariak izan ziren, baita debarrek ere tartean.

Eguraldi kaskarrari aurre eginez, goizeko 8:00etan eman zitzaion hasiera probari. Eta, hainbat erorketa izan baziren ere, lasterketan ez zen bestelako ezusteko larrik egon.

Amaiak Bat Txirrindularitza Taldeak aurten prestatu duen egita-



Ander Salegi

rauaren baitan jokatu den azken-aurreko proba izan da bira-zikloturista. Aurreikusitako azken hitzordua ekainaren 2an (larunbata) izango da. Emakumeak arituko dira lehian egun horretan, hiru kategoriatan: kadeteak, juniorrak eta nagusiak.



EIDER ZULAIKA

Lapurreta

“Bakarrik, norberaren herriko kaleetan noraezean zabiltzala edota, inongo lurretan mundua ikuskatzen zabiltzala... Bat-batean, ezustean bost gizaseme gerturatzeko ikustea, mehatxuka, norbere diru-zorroa eskatzen... Bi aukera baino ez daukazu, biak zilegi direnak. Bata, eskatzen duten hori ematea zirkinik ere egin gabe. Norbere pertenezko defenda izango litzateke bestea. Biak dira zilegi, eta onargarri. Zoritxarrez, bi aukerak emaitza bera emango lukete seguru-erik.

Norbera bakarrik, bost, lau, bat, sei subjektuari aurre egiteko ez gara gai! Ez gara super-heroiak! Eta ez dugu zertan izan, zehatzago esanda, ez dugu izan beharrik!”

Egoera hipotetiko honetan, denok bat etorriko ginatete pertsona horri lapurreta egin diotela esatean. Inork ez luke zalantzan jarriko. Inork ez luke esango nork bere borondatez eman duenik diru-zorroa, bakarrik egotearen ondorio denik lapurreta jasatea... Edota, bere kartera galtzeta-ko atzealdeko poltsikoan gehiegi nabarmentzen zelako, inguruan pasatzen ari zen bati lapurtzeko gogo sorraziz!

Hau horrela, ez ditugu ulertzen emakume bat bortxaz hartzen denean, bere gogo, nahi, desiren aurka hartzen dutenean... ematen dituzten arrazoi, justifikazio eta katramilak.

Nahi dugun bezala janzteko aske gara! Gogo ematen digun lekuetan, lagunekin, egoteko aske gara!



Erakusketan ikusgai egon den irudietako bat, 70. hamarkadan ateratakoa.



Aurtengo krosan ateratako irudia.

Anes Arrinda Krosaren 50. urtemuga

Pasa den apirilaren 21ean, Anes Arrinda Haur Krosaren 50. edizioa izan zen eta, ohiko lasterketak ez ezik, aurtentzen bestelako ekintza berezi batzuk ere egin nahi izan ditugu urtemuga borobila ospatzeko. Argazki eta bideo erakusketa bat jarri genuen ikusgai eliza atarian eta omenaldi xume bat egin nahi izan genien hainbat urtetan lanean aritu diren katekistei eta bolondresei.

Eliza atarian hiru egunez ikusgai izandako erakusketarako argazkiak eta bideoak bildu genituen, krosa antolatu izan den 50 urteotan bildutako materiala ikusgai jartzeko asmotan. Argazkietan ageri diren pertsonak identifikatzeko

helburuz, gainera, jolas bat proposatu genien herritarrei eta izen ugari jaso ditugu azkenean.

Bestetik, Krosaren egunean bertan, hainbat urtetan lanean ibili diren katekistak eta bolondresak omendu nahi izan genituen. Omenaldi hori gauzatzeko, Debako hainbat talde eta pertsonaren laguntza jaso dugu, denek ikusi baitute omendutako pertsona horiek merezia dutela errekonozimendua. Testu bat irakurri zitzaion omenduei eta, agurra dantzatu ondoren, Luzaroko ikasleek bertso batzuk ere eskaini zizkieten.

Omenaldiaren ostean, eguraldia lagun, ohiko lasterketak abiatu ziren,

giro eta aldarte onean eta egun honetan laguntzeko prest agertu ziren bolondres guztiei esker. Korrika egin, mokadua jan eta sari banaketa egin ondoren, aurtentzen krosari amaiera eman zitzaion.

Egun horretako argazkiak eta bideoak gure webgunean jasota daude (<https://anesarrindahaurkrossa.weebly.com>), baita erakusketan aurkeztu diren argazki eta bideoak ere.

Antolaketa taldeko kideok eskerrak emanaz agurtzen gara; mila esker egun berezi hau aurrera eramaten lagundu diguzten guztioi.

Debako Anes Arrinda Haur Krosaren
Antolaketa Taldea

Esker oneko omenaldia

Akordatzen al zarete apirileko igande goiz hartan, meza ondoren, katekesiko lokale-tara joan eta ilaran jartzen ginenean Alamedarako bidean?

Akordatzen al zarete korrikaldia bukatu eta gero kioskora gure dominaren bila joaten ginenean? Hura poza. Inportanteak sentitzen ginen. Begiratuak, txalotuak,... sententzio ederrak ziren, atseginak.

Krosak 50 urte egingo dituen honetarako atzera begiratu dugu, eta gure etxeetan miatu, oroitzen horiek dastatu, eta berriro sententzio horiek gure egin ditugu.

Duela 50 urte Debako herritar batzuk, herriko apaizarekin batera, haurrentzat ekin-tza desberdinak antolatzen hasi ziren, orduan ez baitzegoen haurrentzako ekintza askorik. Kros hau ere ideia hartatik sortu zen, eta gure eskuetara iritsi orduko 45 aldiz korrika egin izan da, dominek hala adierazi ziguten behintzat. Urte hauetan guztietan



hainbat pertsonak eman digute aukera ume sentitzeko, gozatzeko eta begiratuak izateko. Gaur guk begiratu nahi zaituztegu, eta esker-erak eman hor egon zaretelako, ume izateko aukera eman diguzuelako. Gure txikitako sententzio horiek gure ondorengoengana iristeko bidea zabaldu diguzuelako.

Eskerrik asko!

Anes Arrinda umeen krossa ametsa zen hasieran baina batzuek ekin zieten hegoak zabalik hegan; ume ginela korrika hasi ta segi dugu primeran eta ikusi gaur zuei esker noraino iritsi geran, zuek sinetsi zenuen gudan eta herriak zuengan!

Berrogeita hamar urte lanean ez dira bat, ez dira bi geure umeek izerditzeko bazen izerdi ugari! Urte luzetan tokatu zaio Katekista-taldeari omenaldi bat eskaini nahian gator gaurkoan kantari gure alea ta esker ona borondatezko lanari.

Urrezko domina irabazi du Kimetz Alberdik EuskoSkills olinpiadetan

Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak antolatutako EuskoSkills olinpiadak maiatzaren 7tik 11ra bitartean jokatu dira. Lehiaketa Lanbide Heziketako edozein ziklotan matrikulatuta dauden ikasleei zuzenduta dago, eta sail bakoitzak bere txapelketa dauka.

Ikasleen trebezia azaltzeko proba horietako batzuk IMHn eta Meka Elgoibarren jokatu dira eta, era berean,

bi zentroetako ikasleak ere lehiatu dira beste herrietako ikastetxeek antolatutako probetan. Horien artean, Mekako ikasle Kimetz Alberdi debarrak urrezko domina lortu du Oreretan.

Don Bosco ikastetxean jokatutako Automozioko Pintura proban lehiatu da, hain zuzen ere, ikasle gaztea. Proba berean parte hartu duen Meka Elgoibarko Andoni Beristainek bronzeko domina eskuratu du.

Ehun urte bete ditu Madalena Artetxe Arrietak

Zubeltzu Zahar baserrian bizi den Madalena Artetxe Arrietak ehun urte bete zituen apirilaren 30ean. 1918. urtean jaio zen, Arroa Goian dagoen Matraketa baserrian, hamar anai-arreba zituen familian. Gaztetan Zestoan aritu zen neskame eta bertan ezagutu zuen, erromeria batean, bere senar izango zen Anastasio Martija. Horrela ezkondu zen Zubeltzu Zahar baserrira. Sei seme-alaba izan zituen, eta gaur egun bederatzi iloba eta bost birbiloba ditu.

Ehun urte bete zituen eguna famili osoarekin bazkaria eginez ospatu zuen, eta apaiza ere joan zitzaion etxe-



ra meza eskaintzera, Itziarko eliztarren laguntzaz. Era berean, Itziarko Auzo Udalaren omenaldia ere jaso du Madalena Artetxek. Zigor Aizpurua auzo alkatea hurbildu zitzaion bisitan, hizketaldi atsegin baten aitzakian eta lore sorta bat eskainiz.

Maiatzean bidali dute Malira

Debako Kooperazio Taldeak bildutako materiala

Debako Andre Maria Parrokiako Kooperazio Taldeak jakinarazi du Malirako egindako material bilketa kanpainan jasotako guztia maiatzaren 11n bidali zela Debatik. Eskola materialez eta botikez betetako 38 kaxa bildu ditu, baita 23 txirrindu eta puzgailuz betetako beste kaxa bat ere. "Kanpainan lagundu duten herritar guzti-guztiei" eskerrak helarazi nahi dizkie Kooperazio Taldeak.

Jokin Bergara eibartarrak irabazi du

Plazatik Gaztetxera bertso txapelketa

Jokin Bergara nagusitu da Plazatik Gaztetxera txapelketan, finalean Oier Etxeberriarekin buruz burukoa jokatu ostean. Urko Arregi, Manex Astigarraga (Deba), Aitor Zubikarai (Itziar) eta Ane Belokik osatu zuten Ondarroako gaztetxean maiatzaren 12an jokatutako finaleko seikotea. Aurtengo txapelketan 24 bertolarik parte hartu dute, eta publiko aldetik, oro-har, harrera beroa izan duela nabarmendu dute antolatzaileek. Zazpi herritako gazte asanbladek antolatzen dute ekimena elkarlanean eta gaztetxeetan egiten dira saio guztiak.



ALAZNE TXURRUKA

Askatasunetik

Jada pasa da denboratxo bat Aste Santutik. Kristau garenontzat garai berezia, itxaropenez betetzen gaituena. Baina, ez naiz oraingo honetan Aste Santuaz hitz egitera etorri, ez, bestelako gogoetatxo bat egin nahiko nuke zuekin guztiokin.

Hasieran esan dut kristaua naizela, fededuna, eta bai, katoliko praktikantea. Gure herriko parrokiako talderen batean parte hartzen dut, liturgia taldean ere sartuta nabil eta igande batzuetan, zerrendaren arabera tokatzen zaidanean (guk ere egiten ditugu zerrendak eta txandak), mezetan irakurtzen dut.


Badituz jada urte batzuk, ez naiz gaztea, baina orain egiten dudana hauxe bera egiten nuen gazte nintzenean ere. Orduan, behin eta berriz entzun behar izan nuen etxeok derrigortuta egiten nuela, mezetara horregatik joaten nintzela, Sendotza ere beste batzuk bultzatu nindutelako egin nuela, eta hainbat eta hainbat gauza.

Beranduago ere, kristaua nintzela aitortu eta, "pertsone normala zara, barren!!!!" behin baino gehiagotan entzun izan nuen. Zergatik, ez naiz, bada, pertsona normala izango?

Bai gazte denboran eta baita gaur egun ere, askatasunetik hartu izan ditut erabakiak, gure gizarteak uzten digun askatasun guztitik, bederen. Askatasunetik joaten naiz mezetara, askatasunetik erabaki dut Jesusi jarraitzea, merezi duela uste eta sinesten dudalako, gaur egungo gizartean ere zeresan handia eta sakona duelako, eta askatasunetik egin nahi dut hau guztia.

Arrarotzat hartu izan nautela ere esan dizuet, sarritan gainera!!!! Orain ere arraroa naiz, seguru asko. Esan dizuedana esanda, nola ez ba arraroa izan? Ba, ARRARO IZATEN JARRAITU NAHI DUT!!!!

Badator XXXII. Antzerki Astea



Maiatzak 25, ostirala:
Bi ikuskizun:

Deban, Kale Antzerkia,
21:00etan.
"SU A FEU"
Deabru Beltzak Taldea.
Bilbo.




Itziariko Burugorri
Aretoa, 21:30ean.
**"BAKEAN DAGOENARI
BAKEAN UTZI"**
Mirari Martiarena eta
Idoia Torrealdai (Lanku).



Maiatzak 26, larunbata:
Aldats pilotalekuan,
22:00etan (5 euro).

TXOTXE GOGOAN.
"DESHAKESPERAZIOA."
Karrika Antzerki Taldea.
Durango.

Jose Martin Urrutia "Txotxe"-k idatzita, Shakespeareren tes-tuetan oinarritutako lana. Teloia zabaldu eta Londreseko XVI. mendeko azoka batean murgilduko gara..



Maiatzak 27, igandea:
Aldats pilotalekuan,
20:00etan (5 euro).

"BESAULKIAK."
Abarka Antzerki Taldea.
Markina-Xemein.

Estatuak erabakia hartu du: jesarleku mota oro desagerrarazi eta herritar guzti-guztiek besaulki berdina (estandar bat) erostea. Herriz herri eta auzoz auzo egingo dute kontzientzia-kanpaina.



Maiatzak 29, asteartea
GOAZ Aretoa,
10:30ean eta 11:30ean.

"NON DAGO ERREKA MARI." Aizarnako Eskola Antzerkia. Aizarna.

Istoria hau Gipuzkoako herri txiki batean gertatutakoa da, Anrazian, hain zuzen. Bertako herritarrek erreka bota-tzen zituzten zabor guztiak eta, ondorioz, uretara begira-tuz gero, herritarrak kutsatu egiten omen ziren, jarrera bitxi bat agertuz.



Maiatzaren 25etik ekainaren 3ra ospatuko da, GOAZ Antzerki Taldearen eskutik



Udaberria iritsi da, nahiz eta negu giroa dugun gure herri honetan eta udaberriko goxotasuna desiratzen dugun arren. Baina sinetsi ezazue udaberria gurean dela. Bai, bai, ez gara erotu. Euria, haizea, hotza... besterik ez dugu sentitzen Debako kaleetan. Baina... guk ikusi dugu, kale izkinan udaberria kukuka! Irribarre goxo bat eskaintzen.

Eguzkiak ez dizkigu aspaldian gehiegi berotu gure hezurak... egia da. Baina, urtero legez, Antzerki Astea ikusi dugu kale izkinatik keinuka! Eta azaldu digunez,

debarron bihotzak berotzeko prest dator, ohitura zaharrei jarraiki... Antzerkizaleei irribarre, barre algarra edota negar malkoak sorrarazteko gogoz dator. Horretarako, herriko txikientzako pailazoak, kale antzerkia, omenaldia... topera dator aurtengo Antzerki Astea!

Eta, kontatu digunez, gustatuko litzaioke jendez mukuru beteta sentitzea emankizunak, hotzari aurre egiteko modu ezin hobea ei da eta!



Maiatzak 31, osteguna:

Aldats pilotalekuan,
17:00etan (3 euro).

"PUPURRI PUPURRI".

Xalto Ta Xuplente.
Lezo.

Ikuskizuna hastera doa, baina ez da inor azaltzen. Orduan, musika teknikari lanetan dabilenak hartuko du mikroa; artista ez izan arren, gaita jotzen dakiela erakutsiko die ikusleei... Esketx, abesti eta jolas dibertigarriak eskainiko dituzte.



Ekainak 1, ostirala:

Aldats pilotalekuan,
22:00etan (5 euro).

"IKASGAIA".

Taupada Antzerki Taldea.
Elgoibar.

Obra dramatikoak da, irakasle eta ikasle baten arteko harreman menperatzailearen karkatura moduko bat egiten duena. Ikasgai jasotzerakoan go da ikaslea irakaslearen etxera, eta orduan konturatu da irakaslea oso berezia dela...




Ekainak 2, larunbata:

Aldats pilotalekuan,
22:00etan (6 euro).

"ETXEKO SALTSAK".

Txalo Produkzioak.
Donostia.

Greg eta Ginni maitaleak dira eta bizimodu zoriontsuan, ustez, sekreturen bat baitago tartean, isil-gordean, Ginnyk gurasoen landetxera bisita egitera doala esango dio, baina gezurretan ari da...



Ekainak 3, igandea:

Kale Antzerkia,
13:00etan.

"BABA ROYAL".

Ganso&Cia Taldea.
Durango.

50 metro karratuko inperioa, burutik jota dauden errege eta trobalari bitxia. Lurralde txiki honetan xelebrekeria da jaun eta jabe. Tronpetak entzun eta banderak astintzen dira... Ospakizuna has dadila!



**Maiatzaren barruan
Antzerki Astea
32garrena
A ze abilezia!
Poza da herrian
Hau antolatzea
Gonbidatuta zaude
Zatoz ikustera.**

**Ugaria aurtengo
Antzerki eskaintza
Aizarna ta Markina
Pailazo esketxa
Durangoko Karrika
Ta etxeoen saltsa
Deban sortuko deu
Sekulako martxa!**

Berriketan Gaztea

2018ko maiatza
Mendata BHIko Prentsa Tailerlean Sortua

Fernando Morillo idazle azpeitiarra gure ikastetxean

Joan den apirilaren 18an, Fernando Morillo idazle azpeitiarra etorri zen gure ikastetxera, "Idazleak ikastetxeetan" izeneko programari esker. 4. DBHko ikasleek azpeitiarraren "ETA NI ZER?" liburua irakurri ondoren, idazlearekin berarekin solasaldia izateko aukera izan zuten. Ordubeteko bi saio eman zituen ikastetxeko liburutegian.

Idazleak bere bizitza eta bere ibilbidea izan zituen hizpide solasaldian eta gustura aritu zen ikasleek berak idatzitako liburuei eta bere bizitzari buruz egin zizkieten galderak erantzuten. Galdera bat egiten zio-



ten bakoitzean, liburu bat oparitzen zien ikasleei.

Bere hitzaldia amaitu ondoren,



Fernando Morillok liburu batzuk oparitu zizkion ikastetxeari, ikasleek liburutegian eskura izan ditzaten.

Kutxa Espaziora eta Txuri-Urdin Izotz Jauregira irteera

Apirilaren 12an, 3. mailako ikasleek irteera izan zuten Kutxa Espaziora eta Txuri-Urdin Izotz Jauregira. Debatik goizeko 8:30ean irten ziren.

Donostiara iritsi eta berehala, Kutxa Espaziora joan ziren. Bertan, hiru taldetan banatu ziren. Talde bakoitzak hiru ekintza egin zituen. Lehenik, denbora libre izan zuten: bertan zeuden tresnak ikusi eta haiekin jolasteko aukera izan zuten. Bigarrenik, Planetariumean, bideo baten bitartez energia zer den azaldu zieten, modu entretenigarri batean. Eta, azkenik, kimika tailerra: bertan, mantal zuria eta kimikarien eskularruak jantzita, lau taldetan banatu ziren. Talde bakoitzak esperimentu bat prestatu zuen eta, ondoren, denen artean esperimentua egin eta horri buruz mintzatu ziren.



Bazkaldu ondoren, Txuri-Urdin Izotz Jauregira abiatu ziren. Bertan, bakoitzak bere neurriko patinak, kaskoa eta etxetik eramandako eskularruak jantzi eta denak batera joan ziren izotz pistara. Hasieran, bakoitza nahi zuen erara eta erritimoa ibili zen. Ondoren, bertako



monitoreekin elkartu eta ariketak eta jolasak egin zituzten; "Armiarma eta kate motza" jokoak, esaterako.

Debara arratsaldeko 16:00etan iritsi ziren. Ederki pasa zuten bai ikasleek eta bai irakasleek. Errepikatzeko moduko irteera izan zen, eguraldiak lagundu ez zuen arren.

Danel Bereikua youtuberra



“Adiskideek animatu ninduten YouTube kanala sortzera”

“New Daneltxu Style” izeneko kanalean bideoak igotzen hasi den Danel Bereikua elkarrizketatu dugu oraingo honetan. Jakin-minez, 3. DBHko youtuberrari mundu horri buruzko zenbait galdera egin dizkiogu.

Noiz hasi zinen kontu honekin?
Orain dela hiru urte.

Zerk bultzatu edo animatu zintuen YouTube kanala bat sortzera?
Ditudan adiskideek, lagunek... animatu ninduten kanala sortzera.

Zer nolako bideoak igotzen dituzu kanal horretara? Zein da zure gustukoena?
Akziozkoak izan ohi dira, Play Stationeko jokoak eta abar. Assassin´s jokoak gustatzen zait, adibidez.

Zenbat jarraitzaile dituzu? Gehiago edukitzea gustatuko litzaizuke?
Lehen, “daneltxustyle” izeneko kanala nuen eta bertan 50-60 bat jarraitzaile nituen. Orain dela gutxi, kanal hori hackeatu eta beste bat sortzea erabaki nuen, “New Daneltxu Style” izenarekin. Beste kanalean nituen jarraitzaileak berreskuratzeke lanetan nabil. Gustatuko litzaizuke, noski, jarraitzaile gehiago izatea, nire kanala handitu dadin.

Zure gurasoek zer esaten dizute kanalari buruz?
Ez dut uste dakitenik.

Zein da zure youtuber gustukoena? Norbaiten bideo edo edukietan oinarritzen zara?
Bi esango nituzke une hauetan: Cris 1017 edo 8cho. Dena dela, igotzen ditudan kontuak nire ideia pertsonalak dira. Grabatu eta irteten dena igotzen dut.

Zer aldatuko zenuke?
Irudiaren kalitatea.

Zer helbururekin igotzen dituzu bideoak?
Lagunak entretenitzeko egiten dut eta, nagusiagoa naizenean, bideo horietaz oroitzeko.

Zer esango zenieke zure jarraitzaileei? Eta ez direnei?
Mila esker jarraitzeagatik eta, gainerako-ei, jarraitzeko eskatuko nieke. Badakizue, “New Daneltxu Style”!

Inkesta

YouTube

Gaur egun, sare sozial garrantzitsuenetako bat da YouTube gazteentzat. Gai hori hartu dugu hizpide 3. mailako ikasleei egin diegun inkesta honetan:

- 1.- Erabiltzen al duzu YouTube?
- 2.- Hala bada, zenbat denbora eskaintzen diozu egunean?
- 3.- Zer nolako edukiak ikusten dituzu?
- 4.- Zein da zure youtuber gustukoena? Zergatik?
- 5.- Ondo iruditzen al zaizu egiten duten lanarengatik youtuberrek beste pertsona batzuek baino gehiago kobratzea?
- 6.- Benetako lana iruditzen al zaizu?
- 7.- Etorkizunean youtuberra izan nahiko zenuke?

Elene Iyeta



- 1.- Bai.
- 2.- Ordu bat.
- 3.- Gomendatuen artean dagoena.
- 4.- Ez daukat.
- 5.- Ez zaizt axola.
- 6.- Bai.
- 7.- Agian.

Xabi Iribar



- 1.- Bai.
- 2.- Bi ordu.
- 3.- Bideo-jokoak.
- 4.- Bytarifa, makina bat delako.
- 5.- Ez.
- 6.- Bai, baina ez hainbeste diru irabazteko moduan.
- 7.- Ondo kobratuz gero bai.


Aitor Aizpurua




- 1.- Bai.
- 2.- Ordu bat.
- 3.- Bideo-jokoak.
- 4.- Willyrex, grazia egiten didalako.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.
- 7.- Ez.

Denbora-Pasak

Labirintoa



Aurkitu zazpi ezberdintasunak



laguntzaileak:

babesleak:



Debako Udala

Maitane Pastor



- 1.- Bai.
- 2.- Gutxi.
- 3.- "Operación Triunfo".
- 4.- "Operación Triunfo"-ren kanala.
- 5.- Batzuetan.
- 6.- Bai.
- 7.- Ez.

Jon Marbalza



- 1.- Bai.
- 2.- Bizpahiru ordu.
- 3.- Bideo-jokoak eta brikolojia.
- 4.- Paoson woodworking, bere lanak oso txukunak iruditzen zaizkidalako.
- 5.- Sortzen dutenaren arabera.
- 6.- Ez.
- 7.- Bai.

Unai Duran



- 1.- Bai.
- 2.- Bizpahiru ordu gutxi gorabehera.
- 3.- Fornite eta Late motiv.
- 4.- Lolito Fdez, Forniteko jokalaririk onena delako.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.

Nahia Urkaregi



- 1.- Bai.
- 2.- Ordu erdi gehienez.
- 3.- Denetik.
- 4.- Ez daukat.
- 5.- Ez.
- 6.- Ez.
- 7.- Ez.

Sudokua

5	3			7				
6			1	9	5			
	9	8					6	
8				6				3
4			8	3				1
7				2				6
	6					2	8	
			4	1	9			5
				8			7	9

Txistea



Prentsa talerra 2017-2018

Goretti Unanue, Lorena Ladera, Elene Molina, Paula Del Olmo, Kimetz Etxabe, Enaitz Goikoetxea, Unax Arrizabalaga, Itziar Egaña, Maria Mendoza, Naroa Etxeberria, Alaitz Albizu eta Unax Urteaga.

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

MAIATZAK 25-EKAINAK 3

-Euskal Antzerki Astea, GOAZ Antzerki Taldearen ekimenez (ikus 12-13. orrialdeak).

MAIATZAK 25, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko mobilizazioa, plazan.

MAIATZAK 26, LARUNBATA

-08:30. **Mendi irteera,** Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta. Arrixulo.

MAIATZAK 30, ASTEAZKENA

-19:00. **Irakurketa Kluba,** Ostolaza Udal Liburutegian (Yolanda Arrietak gidatua). "Buda en el ático" (Julie Otsuka) eleberria izango dute hizpide.

MAIATZAK 31, OSTEGUNA

-19:00. "Lurraren bidean" dokumentalaren aurkezpena eta emanaldia (euskaraz), Itziarko Burugorri. Informazioa: www.geoparkea.eus.

EKAINAK 1, OSTIRALA

-18:00. **Zuhatza Euskara Elkartearen ezohiko batzarra,** Ifar kaleko bulegoan.

-18:00-19:30. "Historiaurreko gizakia Geoparkean" marrazki lehiaketako sai banaketa eta "Ekain abentura" tailerra umeentzat, Foruen plazan.

EKAINAK 2, LARUNBATA

-Emakumeen II. **Deba Saria** txirindulari lasterketa (09:30: kadeteak; 11:15: junior eta nagusiak).

-10:00. **Irteera gidatua:** "Sasiolako historia ezkutua", Alex Turrillasen eskutik. Abiapuntua: Debako eliza.

-18:30. **Debako EUSKARALDIAK HAMAIIKAKO** aurkeztuko du, plaza zaharrean.

-20:00. **Kontzertua:** "80'S BEAT" (Eibar), Ondargain tabernan.

EKAINAK 9, LARUNBATA

-**Andutz Eguna.**

-22:00. **Kulunka.** Kurtsu amaierako jaialdia, Aldats pilotalekuan.

EKAINAK 10, IGANDEA

-12:00. Gure Esku Dagok antolatutako **giza katea.**

EKAINAK 15, OSTIRALA

-20:30. **Kontzertua:** **Rafa Rueda** (Mungia), Ondargain tabernan.

Kartel lehiaketa

-Irailen ospatuko dugun aro berriko **XXI. Euskal Jairako kartel lehiaketa** abiatu du Zuhatza Euskara Elkarteak.

Euskal Jaia irailaren 29an ospatuko da eta lehiaketara aurkezten diren kartelek derrigorrez testu hau eraman beharko dute: "Euskal Jaia 2018 Deba" (euskara hutsean). Partaideek lan bakarra aurkeztu dezakete lehiaketara. Lanaren neurria A2 tamainan kalitatez argitaratzeko modukoa izan behar da, eta formatuak nahitaez bertikala izan beharko du (teknika librea). Kartela euskarri fisikoan nahiz digitalean aurkez daiteke.

Kartel irabazlea herritarrek hautatuko dute, botoen bidez, erakusketa batean, eta 300 euro jasoko ditu irabazleak. Informazio gehiagorako deitu 943 19 13 83 telefono zenbakira.

Musika eta dantza eskola

-Zabalik da 2018-2019 ikasturterako udal musika eta dantza eskolan matrikulak egiteko epea. Interesatuek ekainaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute matrikula orria Deba Musikaleko idazkaritzan.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **maiatzak 25, 26, 27,**
ekainak 4, 5, 6, 7.

Burgoa Zuazo:
ekainak 8, 9, 10, 18, 19, 20, 21.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: maiatzak 26 eta ekainak 2

BURGOA ZUAZO: ekainak 9 eta 16

9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio

www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka
MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tfnoa.: 943 192 722 • DEBA

**KLASE PARTIKULARRAK
UDAN ERE BAI!**



**LEHEN HEZKUNTZA ETA BIGARREN HEZKUNTZA
(D.B.H.)-KO MAILA GUZTIAK!** (3. eta 4.D.B.H. izan ezik)

Matematika, Euskara, Ingelesa, Gaztelania, ...
- TALDE TXIKIETAN-

NON? AGIRRETXE KALEA 2
672 71 08 59



ekodenda,
dietetika,
belardenda

sasoiiko

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoq -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



*Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



**JOXEAN GALDONA
AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



ES
50 URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Ofartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pinfxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan fragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

k
kutxabank



*...naturalezkoak dira...
...egurrezkoak dira...*

Hazitik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazitik@gmail.com

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

A
D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482



KOLOREZ BLAI UDALEKUAK

1. TXANDA UZTAILAREN 2tik 13ra
2. TXANDA UZTAILAREN 16tik 27ra

IZEN-EMATEA

Maiatzaren 16tik 30era
Zuhatza elkartearen bulegoan
Astelehenetik ostegunera: 18:00-20:00
Ostiraletan: 9:00-11:00

